

Gorka Moreno Márquez

EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA

## Jainko yogurrak

**A**spaldian filosofo batek esan zuen jada jainkoa hil zela eta gurean ere abestiren batean entzun dugu horrelako baieztapenik. Bada ez! Jainkoa ez da hil, jainkoak indarrean daude, ez dira bukatu, eraldatu egin dira, energia bezala. Lehenengo momentu batean jainkoa bakarra, ukiezina, beldurgarria, zerutiarra eta ahalguztiduna izaten zen eta hauxe izan da nagusi XIX. mendera arte. Beranduago, beste jainko batzuk agertu ziren eta lehia sartu ziren aurrekoarekin. Dena den, aurreko jainkoaren izaera mitikoa mantentzen zuten, traszendentziaren ezaugarria amankomuna zelarik. Proiektu politiko handietara lotuta zeuden eta hauen artean Marx, Lenin edota Che Guevara bezalako jainko *laikoak* topatu genitzake.

Gaur egungo jainkoak aldiz, erabat aldatu dira. Geure gizarte kontsumistan garrantzitsuena etengabe kontsumitzea da eta erlijioa ere kontsumo-ondasun bilakatu da. Horrela bada, denbora oro kontsumitu behar dugu eta halabeharrez, ondasunak iraungikorrek izan behar dira kontsumitzen jarraitu ahal izateko. Gure gizartearen beste ardatz batzuk bezala, erlijioak ere ezaugarri hauek erakusten ditu eta lehen betierekotasuna nagusi zen tokian behin-behinekotasuna da. Pentsatu daitekeenez, Jesukristo, Yahvé, Marx edota Lenin bezalako jainkoak joko kanpo gelditu dira. Akaso



INIGO AZKONA

Che Guevara da hauen artean hobeto zahartzen jakin izan duena, bere bertsio potsmoderno-kontsumistan bederen.

Gaur egun indarrean dauden jainko berriak *Jainko yogurrak* dira. Iraungitze-datarekin jaiotzen direnak eta momentuko arrakastaren ondoren azkar desagertu –kontsumituegiten direnak, gero inor ez delarik hauetaz oroitzen. Jainko *kleenex* bezala ere izendatu ditzakegu, erabili bezain pronto bota egiten ditugulako. Hauen artean, futbolari, aktore eta musikariak topa ditzakegu. Hor ditugu, Beckham, Megan Fox edota azken uda hone-tan bogan egon diren Cristiano Ronaldo edota Michael Jackson bera ere. Hauek guztiek, euren jarraitzaile taldea izaten dute eta askotan hauen itsas-argi ere bihurtzen dira, nolabaiteko izaera mitiko-profetikoa bereganatzen dutelarik. Eredu erlijioso berri hau hoberen islatzen duen fenomeno *triunfiteoa* da: askotan obran edota supermerkatuan lan egiten duten neska-mutilak ospetsu eta famatu bihurtzen dira egun batetik bestera eta urtebete beranduago inor ez da hauetaz oroitzen. Denek izan dute fan taldea bere momentuan eta orain hirugarren mailako diskoteka edota herriko jaietan ikuskizunik ematen badute gaitzerdi... Dena den, lasai egon beharko ginatke, urtero jainko belaualdi berria izaten dugu eta hauek kontsumitzeko aukera izango dugu. ■

« Egun indarrean dauden jainko

berriak *Jainko yogurrak* dira.

Iraungitze-datarekin jaiotzen

direnak eta momentuko

arrakastaren ondoren azkar

desagertu egiten direnak »

## HIRUKO TXIRIAN

Joxemari Ostolaza



Naizenik ezin uka. Gaztetan, gure garaian eta bizi genuen munduan ez zuen harro bizitzeko egokierarik ematen. Herriaren opioa, beste erlijio bat gehiago. Ez bagenuen gure zaletasun hura ezkutuan gordetzen ere, bilkuratan jokalarri ginela esatera behartuak ginenean, lotsa puntu bat inork ez zigun bazterten. Orain, zuzenean gazte mailako partidak ikustea dut gogoko. Profesionalak telebistan. Gure inguruan, egun, bi gazte ditugu modako: Griezman eta Munain. Biak ere goletzailak. Ezkertia bat eskuintia bestea. Bere auzoko talde-taldek profesionalak jautsi emanarazi zietenak haurtzaroen.

## Futbolzalea

Ongi doakie biei orain artekoa, egunkarietan, irrati-tan eta telebistatan etengabeko agertzeak ez baldin baditu zozotzen betiko. Bada beste bat orain urte bi edo bazterrek zorabiatu zutena. Hau ere ezkertia, Gasteiz aldetik Badiola izeneko batek Zubietara ekarria. Orain bi aste Real Bk UDARI (Aretxabaleta) sartu lehen gola egin zuena, areaz kanpotik ezkerrez jotako zartako siku batez. Morgado du izena eta internazionala da aspalditik. Laugarrena izaki eta hirugarrena deitzen dioten mailan ari da jokatzen futbola telebistatzeko monopolioren kameretatik urrun, beste hainbaten antzera hedabideetan ez dagoena jokalarri ez bailtzan. ■